

Sagardoaren Nazioarteko Sarea sortu berri da

Europako hamar herrialdek bat egin dute, sagardoari lotutako eskaintza turistiko nahiz kulturala garatzeko

J.S. | DONOSTIA

Europako hamar herrialdetako ordezkariak Ciderlands, Makers & Lovers izeneko nazioarteko sarea sortu berri dute sagardoari lotutako eskaintza turistiko nahiz kulturala ezagutzera emateko.

Erabakia joan den irailean hartu zuten Hernaniko Orona-Ideo eraikinean, Sagardoaren Lurraldeak antolatutako I. Sagardoaren Kultura eta Turismoaren Nazioarteko Topaketan. Bertan elkartu ziren Gales, Ingalaterra, Irlanda, Norvegia, Alemania, Austria, Britainia, Galizia, Asturias eta Euskal Herriko ordezkariak.

Euskadi Basque Country eta San Sebastian Region erakundeen laguntzarekin antolatutako topaketa honetan argi geratu zen sagardoak hazkunde handia bizi duela mundu osoan, bai ekoizpenean, bai turismoari dagokionez, ekoizle txiki eta artisauei lotuta batez ere. Sagardoaren Lurraldeko arduradunek diotenez, «une erabakigarria da oraingoa, horregatik lankidetzaz ezinbestekoa da industria hau garatzeko eta bereziki sagardoaren kultura nahiz turismoa zabaltzeko».

Horrela, parte hartzaile bakoitzak bere eskualdean garatutako proiektuen berri eman zuen, eta ondoren, sarearen baitan garatu



Susanna Forbes kazetari britainiarra, bere liburuan gomendatzen dituen euskal sagardotegi batzuetako ordezkariekin. GARA

beharreko proiektuen inguruko lehen tasunena. Aipatutakoen artean, besteak beste, eskaintza turistiko jasangarria garatzea adostu zuten, «sagardoaren kulturaren inguruko herentzia eta ingurumena zainduz».

Era berean, sareko kideen artean ezagutza eta eskarmentua partekatzea eta zabaltzea adostu zuten, baita elkarrekin azoketan parte hartzea edota sarea erreferente bilakatzea ere eskualdeko,

Europako eta nazioarteko erakundearen artean.

Marka berria

Kide bakoitzaren nahiak eta beharrak azalduta, Nazioarteko Sagardoaren Kultura eta Turismo Sarea sortzea adostu zuten. Ciderlands, Makers & Lovers marka berria eta www.ciderlands.org webgune berria sortu dituzte sagardoari lotutako eskaintza turistiko nahiz kulturala duten

tokiak ezagutzera eman eta, aldi berean, kideen arteko harremana sakontzeko.

Halaber, sareko kideen artean ezagutza eta jardunbide egokiak partekatzea adostu zuten, baita elkarlanean jardutea ere sareko kideen produktu nahiz zerbitzuen nazioz gaindiko sustapenetan, eta finantziarioa bilatzea sagardoaren turismo eta kulturaren alorreko lankidetzaz proiektuak garatzeko.

EUSKAL
HERRIKO ZAZPI
SAGARDO,
MUNDUKO
EHUN ONENEN
ARTEAN

Euskal Herrian ekoiztutako zazpi sagardo aukeratu ditu Susanna Forbes kazetari eta idazle britainiarrek bere "The Cider Insider. The essential guide to 100 craft ciders to drink now" libururako. Argitalpena Sagardoaren Kultura eta Turismoaren Topaketaren testuinguruan aurkeztu zen Astigarragan.

Susanna Forbes, ardoan, garagardoan eta sagardoan berezituriko kazetaria eta idazlea da, eta hamahiru herrialdetako 100 sagardo artisauei gomendatzen dituen liburua argitaratu berri du.

Liburuan azaltzen diren sagardoaren artean, Euskal Herriko zazpi daude: Zelaiako Gorenak Sagardoa 2017 (Hernani), Zapiaingo Euskal Sagardoa Premium 2017 (Astigarraga), Isastegiko Euskal Sagardoa 2017 (Tolosa), Gartziategiko Gorenak Sagardoa 2017 (Astigarraga), Gaztañagako Gorenak Sagardoa 2017 (Andoain), Bereziartuako Euskal Sagardoa 2017 (Astigarraga) eta Bordattoko Txalaparta 2016 (Jatsu Garazi, Nafarroa Beherea).



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-
TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64
WWW.ISASTEGI.COM



TXOOOTX

ANIMATU!!

URTARRILAK 19
APIRILAK 27

TOLOSATIK AUTOBUSA